



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

PRENTSA OHARRA

## Barbadun ibaiaren arroan kokatutako burdinola, errota eta torretxeetan zeharko ibilaldi kulturala

Bilbon, 2013ko azaroaren 4an.

Domeka honetarako, azaroaren 10erako, Enkarterrietako Museoak eta Bizkaiko Batzar Nagusiek “Barbadun ibaiaren arroan kokatutako burdinola, errota eta torretxeetan zeharko ibilaldiaren IV. Edizinoa” antolatu dabe. Kultur ibilbide horren bitartez, Enkarterriaren industria-ondare aberats eta ugariaren barri emon gura da. Ibilaldia goizeko 9:00etan hasiko da Muskizeko San Juan enparantzan, eta eguerdiko 14:00 aldera amaituko da Sopusertako Abellanedako Museoan, azken bost mendeetako lantegi eta eraikinen aztarnen artetik zeharko 24 kilometroko ibilaldia eta gero.

Ibilaldia antxinako burdinolen mundura edegitako leihoa da, Barbadun arroko ibai eta erreketan han-hor-hemen egon eta oraindik orain zutik dagozan burdinolak eta bestelako ondare-aztarnak (errotak, torreak, jauregiak...) ikusiko dirala. Ibilbidea Muskiz, Galdames, Sopusuerta eta Zallako udalerrietatik jonago da. Kulturearen aldetik dauen erakargarritasunaz ganera, paisaiaren aldetik dauena be gehitzen jako, ekosistema ezbardinak ikusiko diralako ibai, larre, mendi eta basoetan barrena.

Bosgarren edizino honetan ibilbidea ez da igazkoa bera izango. Muskizetik abiatuta barrero be, eta Barbadun ibaiaren parean doan antxinako bidetik joanda, ibilbideak mendirantz egingo dau burdinoletarako antxinako bideetatik; Loizaga torrearen eta ermitearen ondotik igaro ondoren, Galdames eta Sopusuerta ibai eta mendiak zeharkatuko dira Abellanedara heltzeko. Ibilbidean zehar indarbarritzeko jan-edanetarako bi leku prestatu ditue antolatzaileek; doan izango dira. Bidezko merkataritzako motxila bana izango dabe opari parte hartzaileek.

### DESGAITASUNDUNENTZAKO IBILBIDEA

Museoak eta Gorabide alkarteak proiektu inklusiboa garatzen dabe alkarlanean, desgaitasundunek be Museoaren ekintzetan parte hartu dagien. Horren ildotik, bada, ibilbidearen zati bat, El Pobal eta Valdivian (Galdames) artekoa hain zuzen, desgaitasundunakaz lan egiten dauen alkarte horretako kideek egingo dabe eta. Era berean, indarbarritzeko jan-edanetarako prestatutako leku biak Gorabideko lagunen ardurapean egongo dira. Ibilaldia doan da eta nahikoa da [www.enkarterrimuseoa.net](http://www.enkarterrimuseoa.net) helbidera idatzita edo 94 650 44 88 eta 94 610 48 15 telefonoetara deituta izena aurretiz emotea.

### ZENBAIT DATU

- Urten: 9:00etan San Juan enparantzatik (Muskiz)
- Heldu: 14:00etarako Enkarterrietako Museora (Sopusuerta)



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**B I Z K A I A**

- Izena aurrez emotea (doan) [www.enkarterrimuseoa.net](http://www.enkarterrimuseoa.net) helbidean (gehienez 500 pertsona); ibilaldiaren egun berean 08:15etatik aurrera.
- 24 kilometroko ibilbidea; jan-edateko leku bi. Dana amaitzen danean, Muskizera itzultzeko doako autobus zerbitzua izango da.
- Izena emoteko azken eguna azaroaren 8a (barikua) izango da, arratsaldeko 18:00etan, eta lekua balego, ibilaldiaren egun berean, azaroaren 10ean (domekan) 8:15etatik 9:00ak arte.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

## Ruta cultural por las ferrerías, molinos y torres de la cuenca del Barbadún

En Bilbao, a 4 de noviembre de 2013.

Este próximo domingo, 10 de noviembre, el Museo de Las Encartaciones y las Juntas Generales de Bizkaia organizan la V edición de la “Ruta de las ferrerías, molinos y torres de la cuenca del río Barbadún”, una marcha de senderismo cultural que pretende dar a conocer el variado y rico patrimonio industrial de Enkarterri. La expedición partirá a las 9 de la mañana desde la plaza San Juan (Muskiz) y finalizará en torno a las 14:00 horas en el Museo de Las Encartaciones en Abellaneda (Sopuerta), tras un recorrido de 24 kilómetros entre naturaleza y vestigios del pasado fabril de los últimos cinco siglos.

Esta actividad es una ventana abierta al mundo de las antiguas ferrerías que salpicaban las riberas de los ríos y afluentes de la cuenca del Barbadún, así como otros elementos patrimoniales (molinos, torres, palacios...), que se conservan en un itinerario que discurre por los municipios de Muskiz, Galdames, Sopuerta y Zalla. A su atractivo cultural, la excursión suma también una belleza natural y paisajística única en un recorrido que atraviesa diferentes ecosistemas salpicados por ríos, prados, pastos, montañas o bosques.

En esta quinta edición el trazado variará con respecto al del año pasado. Partiendo de nuevo de Muskiz y siguiendo el antiguo camino que bordea el río Barbadún/Mayor, la marcha se desviará hacia el monte para retomar viejas sendas férreas que, tras pasar junto a la Torre y ermita de Loizaga, atraviesan ríos y montes de Galdames y Sopuerta hasta llegar a Abellaneda. La organización habilitará dos puntos de avituallamiento gratuito a lo largo de la ruta y se obsequiará a cada participante con una mochila de comercio justo.

### RUTA PARA PERSONAS CON DISCAPACIDAD

En el marco del proyecto inclusivo que el Museo desarrolla con la asociación Gorabide para abrir estas actividades a otros colectivos, uno de los tramos de la ruta, entre las ferrerías de El Pobal y Valdivián (Galdames), será recorrido por miembros de esta asociación que trabaja en el ámbito de las personas con discapacidad. Integrantes de este colectivo participarán además en la gestión de los dos puntos de avituallamiento de la ruta. Para participar en la jornada sólo es necesario apuntarse previamente en la web [www.enkarterrimuseoa.net](http://www.enkarterrimuseoa.net) o en los teléfonos 94 650 44 88 y 94 610 48 15. La actividad es gratuita.

### DATOS DE INTERÉS

- Salida: a las 9:00 h. desde la plaza San Juan (Muskiz)
- Llegada: a las 14.00 h. Museo de Las Encartaciones (Sopuerta)



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**B I Z K A I A**

- Inscripción previa (gratuita) en la página web [www.enkarterrimuseoa.net](http://www.enkarterrimuseoa.net) o en los teléfonos 94 650 44 88 y 94 610 48 15 (máximo 500 personas) y el mismo día de la ruta desde las 08:15 horas.
- La distancia a recorrer será de 24 kilómetros y habrá dos puntos de avituallamiento. Al finalizar habrá un servicio gratuito de autobuses para regresar a Muskiz.
- La fecha y hora tope para apuntarse será el día 8 de noviembre (viernes) a las 18:00 o, si hay plaza libres, el mismo día 10 de noviembre (domingo) de 8:15 a 9:00